# GRADU AMAIERAKO LANA (GrALa)

**Hezkuntza Graduak:**
**Haur Hezkuntza**
**Lehen Hezkuntza**

**Hezkuntza eta Kirol Fakultatea**




eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea


NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# ZER DA GrALa?

- **12 kredituko ikasgaia** da; horren bidez ikasle bakoitzak graduan landutako gaitasunak bereganatu dituela erakutsi behar / ahal du.
- **Ikasle bakoitzak bakarka** proposamen, baliabide edota azterlan bat egin behar du zuzendari baten (edo batzuen) gidaritzapean.
- **Etengabeko ebaluazioa** izango du: prozesua, idatzizko emaitza eta defentsa publikoa ebaluatuko dira.

# GAITASUNAK

1. **Eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoa erabiltzea**, teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea eta ezagutza berria sortzea, irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzeko.

2. Eskolatze-prozesuak hobetzeko proiektuak diseinatzeko **informazio egokia hautatzea, aztertzea eta sintetizatzea.**

3. **Autonomia erakustea**, hausnarketan, argudiatzean, iritzi akademiko eta profesionalak ematean, hezkuntza arloko erabakiak hartzean eta arazoak konpontzean, bakarka nahiz elkarlanean.

4. **Komunikazio gaitasuna erakustea**, ahoz zein idatziz EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

# HASIERAKO URRATSAK

GrALean parte hartzeko, lehenik, **honako baldintza hauek** bete beharko dira **automatrikularen prozesuan**, uztailean:

1. Ikasketa plana amaitzeko behar diren ikasgai guztietan matrikulatuta egotea.
2. Gutxienez 168 kreditu gaindituta edukitzea.

Horrela, ikasleak **gaia eta zuzendaria aukeratu**ko ditu

Esleitutako zuzendaria (eta gaia) **bi ikasturterako** mantentzen da

# HASIERAKO URRATSAK

- Lehen aukeraketa hori egin baino lehen, Fakultateko webguneko **informazio publikoa** irakurri: GrALak badu bere lekua

- **Ekaina bukatu baino lehen** hurrengo ikasturterako eskaintza argitaratuko da: aztertzeko aukera baliatu

# ALDERDI AKADEMIKO-FORMALAK

**TXOSTEN IDATZIA**

Lanak **30-40 orrialde izango ditu** (eranskinak kontuan hartu gabe).

**AHOZKO DEFENTSA**

Ikasle bakoitzak **gehienez 20 minutu** izango ditu defentsarako. Bukatu ostean, epaimahaikideek egin ditzaketen galdera, ohar edo iradokizunei erantzungo die.

**Ahozko defentsaren grabazioa** eska daiteke

# DEFENTSA

GrALaren defentsa **saio publikoan** egingo da, eta bi deialditan egin ahal izango da ikasturte bakoitzean.

**Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan GrALa egin eta defendatzea bermatuko da**. Lana egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da gradua emateko erabili diren hizkuntzetako batean. Nolanahi ere, **defentsarako aukeratutako hizkuntzak eta idatzizko txostenarenak bat etorri beharko dute**.

# GrALaren DEIALDIAK

Defentsak egiteko, **hiru deialdi** izaten dira ikasturte bakoitzean:

1. deialdia: otsailean
2. deialdia: ekainean
3. deialdia: irailean

# IKASLEEN EGINKIZUNAK

- Webgunean ikusgai dagoen **GrALaren gida eta beste dokumentazio publikoa** irakurtzea

- Zuzendariak proposatutako saioetan, mintegietan eta tutoretzetan modu egokian parte hartzea.

- **AUTONOMIA** eta ARDURA erakustea prozesu osoan, zuzendariaren jarraibideak baliatzen jakitea

- **Zuzendariarekin** harremanetan jartzea **ikasturte hasieran**

# EBALUAZIOA - KALIFIKAZIOA

GrALaren **kalifikazioa** honela egingo da:

- **Zuzendariariaren kalifikazioa**: %40 Prozesua eta txosten idatzia ebaluatuko ditu
- **Epaimahaiaren kalifikazioa**: %60 (epaimahaikide bakoitzak %20)

**Zuzendaria** (hiru irakasleko) **epaimahaian** egongo da

# AZKEN GOMENDIOAK

GrALaren gaineko **informazio publikoa** lasai irakurtzea

Zuen interesekoa den **gaia** aukeratzen saiatzea



# DEKANOTZA ALDAKETA

Printzipioz, ekainean gertatuko da trantsizioa:

- **Hezkuntzako Teknikari Alberto Zabalak jarraituko du: alberto.zabala@ehu.eus**

- **GrALaren Dekanordetza beste pertsona batek hartuko du**; ohiko bide ofizialetatik jakinaraziko da

# Eskerrik asko
# zuen arretagatik

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL